

Ariketa hauen bidez jakingo duzu Unitate Didaktiko honetan azaldutakoa ondo ulertu duzun.

Behean, 12 ikasgela dituen ikastetxe bateko ikasle kopuruaren balioak ematen dira:

21, 23, 25, 19, 18, 16, 24, 26, 22, 17, 28 eta 29

1/ Zein da ikastetxeko ikasgela bakoitzeko batez besteko ikasle kopurua, 2 hamartarrekin biribilduz?

- a) 23,22
- b) 22,33
- c) 24,5
- d) 28

2/ Banaketaren mediana hau da:

- a) 23
- b) 22
- c) 22,5
- d) 26

3/ Banaketa honen lehenengo kuartila hau da:

- a) 18,75
- b) 21
- c) 19
- d) 17

4/ 25 balioa non kokatzen da?

- a) 1. kuartilaren aurretik.
- b) 1. kuartilaren eta medianaren artean.
- c) Medianaren eta 3. kuartilaren artean.
- d) 3. kuartilaren ginetik.

5/ Osasun zerbitzu baten balorazioari buruz egindako inkesta batean 40 pertsonak parte hartu dute: 26 emakumek eta 14 gizonek.

1etik 5erako eskalan, emakumeen erantzunen batezbestekoa 3,25 izan da eta gizonena 3,6.

5/ Kalkula ezazu lagin osoari dagokion batezbestekoa, 2 hamartarrekin biribilduz:

- a) 3,73
- b) 3,38
- c) 3,37
- d) 3,65

Hiru adin-tartetan egindako inkesta batean honakoek parte hartu dute:

- 10-25 urte (20 pertsona)
- 25-50 urte (45 pertsona)
- 50-75 urte (25 pertsona)

1etik 5erako eskalan, osasun zerbitzu baten kalitateari buruz honako batezbestekoak lortu dira:

- 10-25 urte: 3,5
- 25-50 urte: 2,8
- 50-75 urte: 3,9.

6/ Kalkula ezazu lagin osoari dagokion batezbestekoa, 2 hamartarrekin biribilduz:

- a) 3,26
- b) 3,36
- c) 3,11
- d) 3,25

Osasun zerbitzu baten kalitateari buruzko inkesta batean, 1etik 5erako eskalan, emakumeek emandako erantzunen batezbestekoa 3,8 izan da eta gizonena 3,0.

Lagin osoaren batezbestekoa 3,48 izan bada

7/ Zenbat emakumek erantzun dute lagina?

- a) 40%
- b) 20%
- c) 80%
- d) 60%

Banaketa baten mediana batezbesteko aritmetikoa baino handiagoa bada, hurrengo baieztapenetako zein da egia.

- 8/
- a) Balio gehiago dago batezbestekotik gora, batezbestekotik behera baino.
 - b) Ezin da jakin batezbestekotik gora balio asko edo gutxi dagoen.
 - c) Balio gehiago dago batezbestekotik behera, batezbestekotik gora baino.
 - d) Batez besteko desbiderapena 0 da.

Banaketa baten batez besteko desbiderapena zero denean, hurrengo baieztapenetako zein da egia:

- 9/
- a) Balio kopuru bera dago batezbestekotik gora eta behera.
 - b) Batezbestekoa eta mediana bera dira.
 - c) Balio guztiak dira berdinak.
 - d) Batezbestekoa mediana baino txikiagoa da.

Banaketa bat beste bat baino heterogeneoagoa izateko hurrengo baldintza bete behar da:

- 10/
- a) Mediana handiagoa izatea.
 - b) Mediana txikiagoa izatea.
 - c) Banaketa baten balioak beste batenak baino hurbilago egotea batezbestekotik.
 - d) Banaketa baten balioak beste batenak baino urrunago egotea batezbestekotik.

Testaren zuzenketa:

10.d
9.c
8.a
7.d
6.a
5.c
4.c
3.a
2.c
1.b